

txintxarri

Lasarte-Oriari 'agour'

Duela hamasei urte hasitako toki berean, Jalgi kafe antzokian, eman du herriko azken kontzertua Makulu Ken taldeak / 8

TXINTXARRI

Gudari oriatarren omenez

Rosa Luxemburgo batailoiaaren argazki bat gehitu diote Zirkuitu etorbidean dagoen irudi historikoen segidari / 9

Palestinaren alde mobilizatzen jarraituko du Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimenak / 2

Atsobakar kirol eremuko obrak nola doazen erakutsi berri du Lasarte-Oriako Udalak / 3

'Erik eta Win' antzezlanaren emanaldia egingo du Buhameak konpainiak hilaren 27an / 5

Hamahirugarren errezitaldia aurrera eraman du Harresi Guztien Gainetik ekimenak / 6

Lasarte-Oriako atletak lehen postuetan izan dira Euskadiko txapelketan / 10

Buruntzaldea IKTKo igerilariak bakarka zein taldean Hernaniko Sariko podiumera igo dira / 11

2023-2024 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN IKASTARO ERDIKO MATRIKULAZIOA

A1 eta A2 tituluak euskaltegia bertan lortzen dira.
B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.

IKASTAROAREN IRAUPENA: 2024KO EKAINERA

- Astelehenetik ostegunera. Astean hamar ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran:
09:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- 16 urtetik gorakoentzat.

MATRIKULA ZABALIK URTARRILAREN 31RA ARTE

Udal Euskaltegiak Publikoak, Inklusibak, Guztiztat.

EUSKARA, bidaia harrigarria
#euskarharrigarria

UDAL EUSKALTEGIA
MARIKULA 1993-2024



DIRULAGUNTZAK BADAUDE. GALDETU BALDINTZAK

Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943-36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00



Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikako kideak, Agora tabernan, deialdiak aurkezteko agerraldian. TXINTXARRI

Palestinaren alde aldarrikatzen jarraitzeko

Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikak bi jarduera berri iragarri ditu emandako azken prentsurrekoan; mozio bat aurkeztu du hil honetako ohiko udalbatzarrean, eta manifestazioa egingo du, hilaren 21ean. Herritarrak horretan parte hartzera deitu ditu

Txintxarri

Urte berriaren hasierarekin batera, Palestinaren alde mobilizatzen jarraitzeko asmoa agertu du Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikak. Agora tabernan egin du agerraldia berriki, hilabete honetarako deitu dituen bi ekimenen berri emateko.

Atzo, hilak 18, 18:30ean aurrera eraman zuten lehena; udalbatzarrean mozio bat aurkeztu zuen. Horrek bi helburu izan ditu; alde batetik, palestinarekin bizi duten genozidioa ikusaraztea, eta Lasarte-Oriako Udalak Palestinarekiko elkartzasuna adieraztea, besteik.

Horretarako, udalari eskatu zioten udaletxeko balkoian *SOS Palestina* dioen afixa bat, eta Palestinako bandera bat eskegi ditzala behin betiko su etena ezartzen den arte eta

tropa sionistak Gazatik alde egiten duten arte.

Ekintza hori simbolikoa izan arren, uste du "garrantzia kualitatibo handia" duela eta palestinarekin bizi duten "egoera humanitario jasangaitzaz kontzientzia hartzeko" balio lezakeela. Gogorarazi du iazko urriaren 7tik hona estatu sionistak 22.000 palestinar baino gehiago erail dituela, horietatik erdiak baino gehiago haurrak izanik.

Gaineratu du udalak "ozen salatu" beharko lituzkeela gertakari horiek, eta Gazan gobernu sionistak zigor eta gerrarako arma gisa gosea, egarria eta gai-

MOZIO BAT EGIN ETA MANIFESTAZIOA DEITU DITU, PALESTINAREN ALDE, HERRI DINAMIKAK

xotasunak erabiltzearen aurrean udalbatzak "epelkeria eta ekidistantziarik gabe" kokatu behar duela: "Gertaerei dagozkien hitzak jarri eta elkartzasuna adierazteko unea da". Horrekin batera, nabarmendu zuen dinamikarentzat ezinbestekoa dela "enpresa eta erakundeen gaineko presio neurriak" abian jartzea, "boikot, desinbertsio eta zigor kanpainaren bidez". Horretarako, udalariaren eta bere inguruen mapa osatu du: bertan, Gazako genozidioa babesten ari diren, eta beraz, beraien jarrera alda dezaten boikota egin beharko litzaiekeen edo presioa egiten saiatu beharreko enpresa batzuk identifikatu ditzute.

Bestalde, hilaren 21erako manifestazio deialdia ere egin du; Okendo plazatik abiatuko da, 17:00etan. Lasarteoriatarrek deialdiaren parte hartzera deitu ditu dinamikak.

'Bateragune auziatatik' ez dute berriz epaituko Rafa Diez

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak afera hori ixtea erabaki du, 11 magistratutatik zazpiren aldeko botoekin

Txintxarri

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak amaitutzat eman du *Bateragune auzia* eta ez ditu berriz Madrilera eramango 2011n epaitutako bederatzita pertsonak, Rafa Diez lasarteoriatarra horien artean.

Auzitegi Nazionaleko orduko epaile instruktore Baltasar Garzonen aginduz, 2009ko urriaren 13an polizia operazio bat aurrera eraman zuten Espainiar Estatuak eta honako pertsona hauek atxilotu zituen, Ezker Abertzaleak bere estrategia aldatzeko prozesua abiatu berri zuenean: Arnaldo Otegi, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez, Miren Zabaleta, Amaia Esnal, Mañel Serra, Ainara Oiz, Txelui Moreno eta Rafa Diez herritarra. 2011n epaitu zituzten eta lasarteoriatarra hamar urteko espetxealdira zigortu zuen Angela Murillo buru zuen Auzitegi Nazionaleko epaimahaiak. Beste horrenbesteko zigorra jaso zuen Otegi eta zortzina urtekoa Zabaleta, Jacinto eta Rodriguezek. Gainerakoak absolbitu egin zituzten. Kartzelaratutakoei egotzi zieten ETaren aginduetara egotea eta erakunde terrorista horretako kide izatea.



Diez, 2017ko ongietorrian. TXINTXARRI

Diez 2017ko abuztuan askatu zuten eta ongietorri beroa jaso zuen herrian. Hiru urte geroago, Auzitegi Konstituzionalak jakinarazi zuenean *Bateragune auziatatik* epaitutakoak berriz Madrilera eramateko asmoa zuela, protesta ekintza batean urte horietan guztietan herritarrek emandako babesa eskertu eta 2009an egiten ari zirena aldarrikatu zuen: "Epaitu ahalko gaituzte berriz, posible da, baina duela 11 urte sustatu genuena, duela 11 urte akusazio bezala zegoena, errealtate bihurtu da. Hori da gure garaipena eta beraien ezina".



TXINTXARRI

Dortsalak, eskuragai

Martxoaren 19an iritsiko da 23. Korrika Lasarte-Oriara, 22:00ak aldera. Horren harira, Munteri AEK euskaltegiko kideek jakinarazi dute bertan parte hartzeko kilometroak erosi nahi dituztenek aukera dutela horretarako. Geltoki kaleko 17. zenbakian euskaltegiak duen bulegora joan daitezke 09:30etik 14:00etara edota 18:00etara (astearte eta ostiraletan), 659 39 66 14 telefono zenbakira deitu edo amaialmaek@gmail.com nahiz amaia-l.m@aek.eus helbideetara idatzi.



Eraikinaren egitura lanak bukatu dituzte, eta ezustekorik ezean, maiatzerako amaituta egongo da kirol eremua. TXINTXARRI

Atsobakar kirol eremuko lanak, "erritmo onean"

Eraikinaren egitura lanak amaitu dituztela azpimarratu du Agustin Valdivia alkateak. Gaineratu du obra "martxa onean" doala, eta ezustekorik ezean, aurreikusi bezala maiatzerako amaituta egongo dela. Orain arte eraikitakoa erakutsi du udalak

Txintxarri

Atsobakar kirol eremua izango denaren obraren erdia egin dutela azaldu du Agustin Valdivia alkateak; aldagelak, taberna, bildegia eta instalakuntza eremua hartuko dituen eraikinaren porlanezko eta metalezko egitura lanak dira amaitu dituztenak. Horiek eginda, igeltseritza eta instalakuntza lanekin hasiko

dira orain; eremuko horma perimetrala amaituta, euri urak biltzeko sarea instalatzen ari dira.

Kirol eremuaren lanak "martxa onean" doazela ere kontatu du, eta, hori hala izanik, aurreikusitako datarako (maiatzerako) lanak amaituta egongo direla ere aipatu du. Kiroldegi berriari erreferentzia eginaz, azaldu

du espero duela "interferentzia handirik ez gertatzea" kiroldegi berriaren lanen hasieraren eta Atsobakar kirol eremuaren amaiera lanen artean, horrek kirolariengan "ahalik eta eragin txikiena" izan dezan.

"Bigarren mailako obrak"

Horma perimetrala egiteko Froilan Elespe parketik zihoan pa-



Porlanez eta metalez egindako egituraren argazki bat, barrualdetik aterata. TXINTXARRI



Euri urak biltzeko sarea instalatzen ari dira orain. TXINTXARRI

sealekuetako bat moldatu dutela azaldu du, eta, aipatu, kirol eremura Green plazatik eta trenbide ondotik oinez eta bizikletaz iritsi ahal izango direla erabiltzaileak.

Kiroldegira iristeko errepide bat ere izango da, baina autoak kirol eremuaren behealdean, Urbileko aparkalekuan utzi behar dituztela ohartarazi du, izan ere, aurreikusia zegoen bidea eginez gero zuhaitz asko bota behar baitzituzten eta horiek mantentzearen alde egin dute. Halere, autoen aparkalekua eta kirol eremua eskailera batzuen

bitartez konektatuko da. Honako adierazpenak gehitu ditu gero: "Instalazio honen alde ona da erabiltzaileak oinez zein bizikletaz iritsi ahal izango direla ateraino".

Atsobakar Aldi Baterako Enpresa Elkartea da eraikuntza lanak aurrera eramaten ari dena; Construcciones Mariezcurrena SL (%50) eta Construcciones Zubieder SL (%50) lantegiek osatzen dute hori. Gauzatze-lanen aurrekontua, berriz, honako hau da: 5.505.040,47 gehi BEZa (%21) 6.661.098,96.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

Haur eta nerabeen emozioez hizketan

'Haur eta nerabeen emozioen bidelagun: nola zaindu seme-alaben emozioak' hitzaldia eman du Donna Apellaniz Nieto terapeuta emozional sistemikoak, gaztelaniaz. Lepo bete dute Antonio Mercero aretoa gurasoek

Txintxarri

Nerabezaroan euren izaera lantzen ari dira gazteak, eta, "garai oso hauskorra" izan daitekeen arren, "aproposa" ere bada haiekin lanketa emozionala egiteko, Donna Apellaniz Nieto terapeuta emozional sistemikoaren iritziz. Dozenaka guraso izan ditu parean Antonio Mercero aretoan, *Haur eta nerabeen emozioen bidelagun: nola zaindu seme-alaben emozioak* hitzaldia eman bitartean. Gaztelaniaz aritu da eta kontzeptu teoriko batzuk partekatzeari gain adibide praktikoak jarri ditu eta galderak egin entzuleei, haiek ere solasaldian parte hartzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendariak prestatu duen Treba Gurasoak egitasmoaren barruko solasaldia izan da hori. Hauxe du helburu:



Donna Apellaniz. TXINTXARRI

gurasoak hezkuntza gaitasunetan trebatuta, haur eta nerabeen bizi kalitatea hobetzea. Sustatzaileek nabarmendu dute "bizia eta malgua" dela ekimena, "unean uneko errealitate eta eskaeretara egokitu ahal izateko".

Haurren eta nerabeen guraso guztiek, uneren

batean, orientazioa behar dute hezkuntza prozesuan beren funtzioak "behar bezala" garatzeko. Hala ere, laguntza edo babes horren helburuak ez du erreparatzaile edo terapeutiko hutsa izan behar; aitzitik, prebentziozkoa izan behar du, eta familiako kide guztien garapena sustatu behar du.

Ondorioz, gaur egungo aitei eta amei gurasotasun positiboaren ikuspegiak lagundu egin diezaieke euren seme-alaben heziketako eta hezierako jardunean. Gakoa ez da gurasoek autoritatea baliatzea haur eta nerabeen obediencia lortzeko, baizik eta aginte hori arretaz betetzea; hau da, arduraz jokatzeko gazte txoen eskubideak babesteko, baina beraien eskubideak urratu gabe.



TXINTXARRI

Adiskidetasuna, ardatz

Adiskidetasunari buruzko istorio bat eszenaratu du Teatro Paraiso konpainiak kultur etxean: *Kutxartean*. Berataratu diren hogeita hamar bat haur eta helduk kutxa banatan bizi diren Bartolomeus eta Komino laguneri berri izan dute. Bi pertsonaiek bidaia irudikatzen dituzte eta pozik bizi dira bata bestea izanda, nahiz eta Kominok batzuetan Bartolomeusek gauzak nola irakasten dizkion ez duen atsegin. Hirugarren pertsonaia bat agertu eta beraien kutxak lapurtuko dizkie, bien arteko laguntasuna kolokan jarri.



NEURE KABUZ
GORKA ALVAREZ

Stranger things

Gure hizkuntzaren erabilera. Unea, lekua, modua, testuingurua. Merezki duen arreta eskaintzen al diogu, oso gurea sentitzen dugun euskararen komunikazio indarrari, erabiltzen dugun leku eta momentuen aukeraketari eta azken batean hizkuntza batek izan beharko lukeen berariazko funtzio nagusiari; komunikazio tresna izateari?

Hizkuntzaren baliagarritasuna bere horretan baloratzen dugu edo tarteka ez ote da neurrigabeko folklorismo hutsean geratzen? Kanean, egunerokoan ikusi ohi ditugu harro, euskaldun izaera duten gurasoak jo eta su gaztelaniaz. Irakasleak, eskola zein ikastoletan euskararen defendatzaile sutsuenak izan ohi direnak, lantokiko atea zeharkatu ostean ere modu berean jokatuaz, gutxi batzuk izango ote diren esperantzaz idazten dut hau. Nola ez, politikariak. Ustezko euskaltzale askoren eredu izatetik urrun, arnas gune izatetik, zingira gune bilakatuta.

Guztiok egunerokoan, gutxi asko, errutinetan errepikatzen ditugun jarrerak direlakoan. Konturatzen ote gara? Hausnartzen ote dugu honen harira? Jarrera hauek zein eragin daukate guban eta ingurukoengan? Hortxe galdera.

Euskara ez den beste hizkuntza batetan jarduteak, nolabaiteko erakargarritasuna gehitzea edota estatus desberdin batean egotea dakarren galderari erantzun bila... Erantzuna ez da atsegina eta baiezkoa da; noiz gaindituko ote dugu? Laneko bileran bat-batean pisuzko gaietaz hitz egiten denetan, lagunartean osasun gaien inguruan hitz egiterakoan edota instituzio baten aurrean erreklamazio bat jarri behar dugunean, gaztelaniaz egiteak ematen digun segurtasun faltsu hori kasu, jasoko duenak ulertuko ez duenaren sentsazioarekin; hobe ziurtatzea. Azken egoera hauek bizi ditugu, egunerokoan ikusten ditugu; zoritxarrez egunero burutzen ditugu.

Zutabearen izenburua adibide moduan jar daiteke. Ingelesezt jartzeak eta tele-sail ezagun baten izenburua izateak, ziur bat baino gehiago erakarri duela lerro hauek irakurtzera. Gerora, idatzi honen muina edota mamia irakurri ostean, etsipena sentitu izan duten berak izango dira. BEC edota BCC bezalako sigla arrotzak erabiliz kontent sentitzen diren horiek bezala, produktua internazionalizatzeko aldera. Erakustazoka batek edota ikastetxe gastronomikoek glamouretik gehiago izan behar dutelakoan izendatzen ditugun hizkuntzaren arabera.

Badira ordea, gure hizkuntzaren eguneroko baliozkotzearen eta defentsaren alde tarteka ageri diren argi izpi lausoak, izar iheskorak esango nuke. Hausnarketa sustatzera eta ekintzetara jotzera bultzatzen gaituzten uharte txikiak.

Saudi Arabian azken egunotan jokatu den Espainiako futbol Superkopa zentzugabe eta kontraesankor horren harira, jazo zaigunari buruz ari naiz. Atzerrian, giza eskubideak errespetatzen ez diren herrialde batetan, egindako aldarri eta duintasun ariketa azpimarratu nahiko nuke. Jagoba Arrasatek, C.A. Osasunako entrenatzaileak, gure hizkuntza eskubideen aldeko ariketa ederra egin du prentsa aretoan mundu osoko komunikabide andanaren aurrean egonda, gurea erabiliz, Euskal Herriko kazetari batek gaztelaniaz galdera egin ostean, berak hizkuntzen funtzio nagusia azpimarratuz eta gurea defendatuz erakutsi digu, hizkuntzak tresna izateaz haratago gure izaeraren eta izateko modu baten erakusle ere badirela lekua eta momentua direnak izanda ere; nola? Euskara erabiliz. Bi euskal hiztunen artean euskara lehenetsiz komunikazio bide amankomun bezala.

Nafarroan, bitartean, hizkuntza, inposaketa eta oztopo gisara ikusten ari dira batzuk euskara. Milaka kilometrotara gurea babesten beste batzuk eta mila kilometro hegoaldera eginez gero, Cadizen inauterietako konpartsa bat gure hizkuntzaren aberastasunen inguruan kantuan, katalana eta galizierarekin batera.

Urrun egiten direnak, gugandik datozenak eta besteengandik jasotakoak beti izango dira bozgorailu onak baina erraieretatik heltzeko gurean, gureari egiten diogun gutxiespena gelditzea ezinbestekoa da. Hauek bai gure *Stranger things*-ak, gure gauzatxo arraroak. Kanpoan etxean baino baloratuago eta ez harro ez gaudelako, ez gurea sentitzen ez dugulako. Erabiltzen ez dugulako baizik. Etsai nahikoak ditugu zoritxarrez euskararen normalkuntzaren bide zail honetan. Ez ditzagun guk oztopo berriak gehitu eta saia gaitezen erabilera urriko uharteak, penintsula emankor bihurtzen. Izar iheskorak, iraunkorak izan daitezten saiatuz ereduak sendotu eta gazteenganako ereduak finkatuz.

Gure hizkuntzarekiko harrotasuna, ibilian, erabiliaz erakutsi beharrean gaudela iruditzen zait.

Jalgi hadi mundura bai, baina lehenengo jalgi hadi plazara eta bereziki euskal hiztunon ahoetara, mihietara; hitzetara.



'Erik eta Win' antzezanaren kartela. Bertan azaltzen dira, besteak beste, Unai Muñoa eta Ander Lizarralde. BUHAMEAK

Hamaika gogoeta oholtzan, umoretik

Buhameak taldeak hilaren 27an egingo du 'Erik eta Win' antzezanaren emanaldia, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera. Taula gainera igoko diren artistetako bi herritarrak dira, Aitor Atxega musikaria eta Unai Muñoa bertsolaria

Iñigo Gonzalez Sarobe

Erik eta Win ikuskizuna estreinatu eta ia lau urtera ariko dira Buhameak taldeko lagunak Lasarte-Orian, hango eta hemengo areto eta oholtzetan ibilbide oparoa bizkarrean. Lau kide igoko dira Manuel Lekuona Kultur Etxeko agertokira hilaren 27an, larunbatarekin, 20:00etan: Unai Muñoa eta Ander Lizarralde ber-

tsolariak eta Aitor Atxega eta Imanol Kamio musikariak. Gizakien arteko erlazioen intimotasuna jorratuko dute lehen biek, haien arteko harremanaren bilakaera ardatz hartuta: nola erakarri ziren, euren arteko botere harremanak nolakoak izan diren, nola elkar lagundu edota konpetitu duten, nola harremanak diren emakumeekin eta nondik nora

hurbildu diren haiengana, erakutsi eta ezkutatu dituzten desio eta behar emozionalak... Finean, "hain agerian ez dauden gai ugari" aztertuko dituzte, Atxegak TXINTXARRI-ri kontatu dionez. "Genero arteko harremanak, gizontasun eredu berriak...". Hori dena, eta gehiago, umoretik.

Atxega bera eta Muñoa lasarteoriatarak dira; hortaz, hila-

ren 27an etxean eta etxeokoan aurrean ariko dira, nolabait esatearren. Musikariak aitortu du "poz handia" ematen diela emanaldi hau aurrera eramateko aukera izateak, eta balitekeela "bukaera baten hasiera" izatea, ikuskizunak ia lau urte bete dituelako (koronabirusaren pandemia tartean) eta halakoez ez dutelako ibilbide askoz luzeagoa izaten antzoki eta aretoetan. Pozik bai baina urduri ez, *Erik eta Win* ondu dutenek ibilbide luzea egin dutelako honezkeroko eta ikuskizuna oso ongi prestatu. "Baliteke zuzenekoan arazoren bat izatea, baina ez da izango parte hartzen dugunon utzikeriagatik, lana egin ez izanagatik".

Ikuskizun "hibrido"

Bertsolaritza, musika, antzerkia eta poesia uztartu dituzte ikuskizunean, Atxegak azaldu duenez: "Hibrido da". 2013an estreinatu zuten *Ez gara Palestinaz ari* lanak erakutsi zien bidea, eta "marka bat, egiteko modu bat" mantendu dute *Erik eta Win*-en, lehenengoaren jarraipena ez den arren. Lehen aipatutako gai horiek guztiak eta gehiago jorratuko dituzte bertsolariek, bi ahotsetara, musikarien laguntzarekin: pianoa, akordeoia eta gitarra izango dira erabiliko dituzten instrumentuak. Musikari lasarteoriatarak azpimarratu du beraiek sortutakoak direla antzezanaren zehar erabiliko dituzten doinu ia guztiak, bertsionatu egingo dituzten buleria eta bolero bana izan ezik. Ikuskizunaren muinak eta musikak berebiziko garrantzia dute eta baita eszenografiak ere, oholtza gainean nola erakutsi erabakitzekoak, hain zuzen ere. Asier

'Erik eta Win' lanaren fitxa teknikoa

'Erik eta Win'

- **Bertsolariak:** Unai Muñoa eta Ander Lizarralde.
- **Musikariak:** Aitor Atxega eta Imanol Kamio.
- **Zuzendaria:** Asier Sota.
- **Iraupena:** 70 minutu.
- **Generoa:** Bertsolaritza, musika, antzerkia eta poesia.

Erik eta Win ikuskizunari buruzko informazio gehiago Buhameak taldearen webgunean topatuko dute herritarrek, azpiko QR kodea sakelako telefonoarekin eskaneatuta:



Sota antzerkigile eta zuzendari artistikoak lagundu die horretan.

Ezaugarri horiekin guztiakin sortu dute *Erik eta Win* Buhameak taldeko kideek eta Atxegak kultur etxera joatera animatu ditu herritarrak. "Lantzen ditugun gaiak pil-pilean daude. Zorritzarrez, asko dugu lantzeko oraindik; etor daitezela sortu duguna ikusi eta gure ikuspuntua ezagutzera". Sarrerak salgai daude honezkeroko eta 6 euro baliore dute.

Solaskiden hilaren 31ra arte izena eman dezakete

Batez ere Bidelagunak behar dituzte, euskaraz hitz egiteko urratsak egiten ari diren laguntzaileak

Txintxarri

Solaskide egitasmoko partaideek bi rol izan ditzakete: batetik, Bidelariak, euskara praktikatu nahi duten pertsonak; eta, bestetik, Bidelagunak, euskaraz aritzeko urratsak egiten ari

direnei laguntzen dietenak. Lasarte-Orian ekimen horri aurrera eramaten dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak, Ttakun Kultur Elkarteak eta Muntteri AEK nahiz udal eskualtegiak.

Izena emateko epea hilaren 31ra arte zabalik dagoela gogorarazi du Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxor-dokik. Bi baldintza besterik ez dituzte bete behar partaideek: euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila edukitzea eta astean behin ordubetez talde batean aritzeko konpromisoa hartzea. Interesa dutenek kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi, 695 78 53 89 telefono zenbakira deitu edo galdetegi hau bete behar dute: labur.eus/solaskide2324/.



Jalgi kafe antzokia toki aproposa da solaskideak elkartzeko. TXINTXARRI



Gallaga, Iriondo eta Fernandez senideak, horiek espetxetik noiz etxeratuko diren zain. TXINTXARRI



Ibon Fernandez Iradi eta Aitzel Iriondo lartzaren idatziak irakurri zituzten. TXINTXARRI

Espetxea eta etxea lotu ditu, hamahirugarrenez, kultur etxeko agertokiak

Harresi Guztien Gaietik herri ekimenak aurrera eramán du XIII. Errezitaldia. Ohi bezala, espetxean egon direnen eta bertan jarraitzen duten preso lasarteoriatarren eta euren senide eta gertuko en bizipenak ekarri dituzte agertokira aurtengoan

Txintxarri

Formatu berria izan du aurtengo XIII. Errezitaldiak. Ibon Fernandez Iradi eta Aitzel Iriondo lartzaren idatzi bana irakurriaz eman zion hasiera ekitaldiari Harresi Guztien Gaietik egitasmoak; Maialen Aristegi musikariak lagunduta irakurri zituzten testuak. Ondoren, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako dantzariak hartu zuten agertokia. Beltzez jantzita agertu ziren ikus-entzuleen aurrera, eta sorkuntza dantza bat erakutsi zuten.

Hori amaituta proiektatu zuten aurtengorako prestatu zuten dokumentala: *Oroitzen zaituztegunean... mahaia guztientzat ipinita*. Eguberri garaiko mahai ingurua irudikatu nahi izan dute, eta ikus-entzunezkoaren lehen zatian, oraindik preso jarraitzen duten Ibon Fernandez Iradiren ama, Mila Iradi Otaegi, Aitzel

Iriondo lartzaren ama, Itziar Iartzeta Etxenike, eta Jabi Gallaga Ruizen anaia, Mikel Gallaga Ruiz. Eurekin batera agertu da, baita ere Apolonia Otxandorena Sala; Ina Orotegi Otxandorena preso ohiaren ama. Senide gisa bizitakoak kontatu dituzte. Horrekin batera, auren senideen Errezitaldietan izan dituzten parte hartzeaz ere mintzatu dira. Denek ala denek eskertu dute inguruko lagun eta herritarrengandik urte luzez jasotako babes eta laguntza guztia.

Amaiera goxo bezain hunkigarria eman zioten proiektioaren lehen zatiari; hiru presoen familiako kideak elkarri helduta agertu ziren. Euren atzean, beraien senide presoentzako mahaia jarrita ikus zitekeen, horiek noiz etxeratuko zain, gozoz daudela irudikatuz.

Bigarren zatian, gehiago

Sei protagonista agertu dira dokumentalaren bigarren zatian: Ina Orotegi Otxandorena; Niko Francisco Rodriguez, Rikardo Izaga Gonzalez, Txurdi Rezabal Zurutuza, Pello Eskisabel Urtuzaga eta Rafa Diez Usabiaga. Horiek ere espetxeko bizipenak ekarri dituzte gogora, eta orain arte aurrera eramán diren errezitaldietan izan dituzten parte hartzeaz ere hitz egin dute.

Dokumentalari amaiera eman eta egindakoa borobiltzeko, protagonista ia guztiak agertu ziren, elkarrekin; topa egin zuten mahaia-aren inguruan elkartuta.

Proiektzioak atzera begiratu eta egindako bidea gogoratzeko ere balio izan du; orain arteko edizioetako irudi eta bideoak tartekatuta zituzten. Iturralde-Balardi familia ere gogoan izan zuten ekimenean.



Kukukako kideek sorkuntza dantza bat taularatu zuten. TXINTXARRI



Mahaia-aren inguruan topa egin zuten dokumentaleko protagonistek. TXINTXARRI



Pieza guztiak konpondu eta ordezkatzeko dituzte Bertakok, igogailuaren bizitza erabilgarria iritsi arte. BERTAKO

Bertako: igogailuetan gertukoa eta berezia

Igogailuen instalazio- eta mantentze-lanak egiten ditu Bertako enpresak, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan. Duela 9 urtetik ari da zeregin horretan, enpresa moduan. Dena den, lantaldeak aurretik dihardu sektorean. Esperientzia handiko taldea da

Bertakok 2.700 igogailu baino gehiagoren mantentze-lanak kudeatzen ditu Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Gehienbat, igogailu marka guztietako mantentze-lanak egiten ditu Bertakok. Eta pieza guztiak konpondu edo ordezkatzeko dituzte, igogailuaren bizitza erabilgarria amaitu arte.

Zerbitzu gardena

"Berezia da gure enpresa, sektoreko beste enpresa batzuekiko ezberdin", dio Bertakoko Iban Sanchezek, Bertako enpresako zuzendari komertzialak. "Bezeroari bideratutako enpresa da Bertako. Zerbitzu gardena eskaintzen dio jardueraren erdigunean dagoen bezeroari", dio; gardentasuna eskaintze nahi du, "berez opakoa" den igogailuen sektorean. Horregatik, sorreran, sektorea ondo aztertu ostean, gustuko ez zitezkeen albo ateratu eta zerbitzuak beti bezeroari, herritarrei, etxebizitza komunitateei, eskaintzen hasi ziren.

24 orduko benetako zerbitzua

Marka askotariko igogailuen mantentze-lanak -batik bat-; igogailuen instalazioa; edota zaharkituta

dauden igogailuen ordez berriak jartzea. Horiek dira Bertakok egiten dituen lanak eta eskaintzen dituen zerbitzuak. Eta hori guztia, ustekabeko konponketa lanei uneoroko erantzuna emanda.

Bertakok bezeroekin -etxebizitza komunitateekin- sinatzen dituen kontratuak, "24 orduko benetako mantentze-zerbitzuak" eskaintzen ditu, urteko 365 egunetan. "Iraunkortasun klausulak edota bestelako zigor klausulak ezarri barik". Hau ez da ohikoa sektorean, Iban Sanchezek ustez. "Beste enpresa batzuek 24 orduko mantentze-zerbitzuak eskaintze baino, gero, benetan ez dute 24 orduetan zerbitzu ematen. Guk benetako 24 orduko zerbitzua eskaintzen dugu; izan asteburu edo ordu txiki". Horregatik dira Bertakoren bereizgarriak "gertutasuna, gardentasuna eta bezeroarekiko konpromisoa".

Sorreran enpresa txiki izatetik bere jardun eremuan enpresa esanguratsua izatera pasa da Bertako. 40 langilez osatutako lantaldea osatzen du Bertakok.

Prezioaren garrantzia

Prezioa da Bertakoren beste bereizgarri bat. Enpresa lehiakorra

da, alde horretatik ere. Esaterako, orotariko zerbitzua eskaintzen duen enpresa batek BEZik gabe "150 eta 250 euro bitartean kobra zezakeen hileko gu hasi ginenean, duela 9 urte. Eta gu hasi ginen zerbitzu hori 100-115 eurotan eskaintzen. Eta gaur da eguna galzten ditugun bezero gutxiak eskaintzen dutena zerbitzu hori 65-75 eurotan". Sanchezek dio kompetentziako enpresek leporatu ziotela sorreran prezioak "botatzea" eta gaur dela eguna Bertakoren aurretik eskaintzen zuten prezioaren erdian dabilzana.

Euskarari garrantzia

Enpresa euskalduna eta euskaltzalea da Bertako. Ahalik eta zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditu. "Edozelan ere, onartzen dugu gure teknikari guztiak ez direla euskal hiztunak; batzuk badira; beste batzuk ez. Baina euskararekin konprometituta gaude eta ahal dugun zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditugu. Adibide bat jartzerren, Tuteran aurrekontuak eta fakturak euskaraz eta gaztelaniaz egiten ditugu". Beste konpromiso batzuk ere baditu euskarare-



Igogailuen mantentze-lanak egiten ditu Bertako enpresak. BERTAKO

Aplikazioa, bezeroen zerbitzura

Gaur egungo teknologiak darabiltza Bertako enpresak, eskaintzen duen zerbitzua eraginkorra izan dadin.

Bertakok eskuko telefonoetan erabiltzeko aplikazio bat ere badu. Honako hau ere bezeroei begira. Bezeroaren eta Bertakoren arteko harremanetarako ez ezik, Bertakoko bezeroak beste gertuko gremio batzuekin harremanetan jartzeko ere balio du aplikazioak. "Esaterako, etxebizitzaren komunitateko arduradunak arazo bat baldin badauka eta igeltsero, argiketari, arotz, iturgin edo bestelako gremioaren baten premia badu, aplikazioak ahalbidetzen du haren inguruan jarduten duten gremio horiekin harremanetan jartzea", dio Sanchezek.



Bertako aplikazioa. BERTAKO

Lehentasunezko tratua

Hartara, bezeroei zerbitzu ona eskaintzeaz gain, tokiko negozioei ere laguntzen die. Sanchezek esanetan, "larrialdi egoeretan dauden eta momentu batean konponbide azkarra behar duten herritarrei zerbitzua eskaintzen zaie, baina ez larrialdi prezioen truke".

Lehentasunezko tratua eskaintzen diete gremioek herritarrei, Bertakoren aplikazio horren bidez.

kiko: Korrikaren babeste izatea edota euskarazko tokiko hedabideetan publizitatea egitea.

Gizartearekiko erantzukizuna

Euskararekiko ez ezik, bertako eta gertuko beste jarduerak batzuekiko ere badu erantzukizuna Bertakok, kirolaren edo kulturaren alorretan, esaterako. Tokikom, Arrasate Musikal, Hondarribia Arraun Taldea, Gaztedi Rugby edota Iker Vicente babesten ditu, besteak beste. Horretaz gain, emakumearen parte hartzea kirolean eta kirol egokituak sustatzen duten erakundeak ere babesten ditu, diruz lagunduz. "Halako erakundeetan atzean dauden pertsonak, jeneralean, izan ohi dira pertsona inplikatuak, diru aldetik ez horren aberats direnak, nahiz eta beste aberatasun batzuk izan. Haien ondoan egotea gustuko dugu eta halako

proiektuak diruz laguntzen ditugu", dio Iban Sanchezek.

Bertakoren zuzendari komertzialaren ustez, gainera, erantzukizun horrek Bertakoren marka indartzen laguntzen du. "Bertakoko bezeroa gure bezero izateaz harro egon dadila nahi dugu; zerbitzu ona eskaintzeaz gain eta haren igogailua matxuratzeko den bakoitzean azkar erantzuten duen enpresa izateaz gain, beste balio batzuk, harekin bat datozenak, dituen enpresa garelako ikustea".

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

- Araba 945 712 822
 - Bizkaia 946 523 935
 - Gipuzkoa 943 903 450
 - Nafarroa 848 870 917
- www.bertako.eus



Makulu Ken taldeak Jalgin eman duen azken kontzertuko uneetako bat. TXINTXARRI



2007ko Multimuskalean jo zuen estreinakoz Makulu Kenek. TXINTXARRI

Jalgi, "dena hasi zen tokia"

Txorimalo Gazte Kolektiboa zenak 2007an antolatutako VI. Multimuskalean jo zuen estreinakoz Makulu Ken taldeak. Txus, Unai, Xabi eta Xuber lasarteoriatarrek igo ziren orduko horretan oholtzara, urtebete baino gehiagoz entseatu ostean.

'Agour' esan diote Lasarte-Oriari

Euskal afrobeat doinu koloretsuak entzun eta dantzatu dituzte dozenaka zalek Jalgin, kafe antzokia goraino beteta. Makulu Kenen sortzaileetako bat den Xabi Herrerarekin elkartu da TXINTXARRI aldizkaria, proiektu horren hasiera, bilakaera eta amaierari buruz hitz egiteko

Maitane Aldanondo - Iñigo G. Sarobe

"Makulu Kenen amaieraren arrazoi nagusia kontratazio falta izan da, argi eta garbi. Oraindik argitaratu gabeko material asko dugu baina egoera honetan jarraitzeko gogorik ez dugu". Xabi Herrera lasarteoriatarren hitzak dira, euskal afrobeat musika estiloa hamasei urtez landu duen taldeko abeslari, gitarra jotzaile eta sortzaileetako batena. Agour Tour birako kontzertua eman zuen bederatzikoteak Jalgi kafe antzokian hilaren 13an eta egun batzuk geroago elkartu da TXINTXARRI-rekin toki horretan bertan.

"Gazi-goza" izan da Lasarte-Orian emandako azken kontzertua, Herreraren hitzetan. Gozoa, Aitor Carrasco lagunak musikariak aurkeztu ondoren "izugarri" gozatu zutelako jotzen, metro gutxitara zituzten ikus-

tzuleek gogotik gozatu zutela ikusi zutelako eta kontzertuaren ostean "bapo" afaldu zutelako kafe antzokian bertan. "Oso ongi tratatu gintuzten, jar ezazu hori elkarrizketan", esan dio kazetariari. Gazia, taula gainean dena eman bitartean azken aldia zela zekitelako, herri honetako behintzat bai. Izan ere, ez dute baztertu beste herriren batean noizbait euskal afrobeat doinuak plazaratzea.

Hamasei urte pasatxo dira Makulu Kenek estreinakoz kontzertua eman zuenetik. Espero al zuen Herrerak horren ibilbi-

"MAKULU KENEN AMAIERAREN ARRAZOI NAGUSIA KONTRATAZIO FALTA IZAN DA"

de luzea izatea taldeak? Hona erantzuna: "Garai horretan ez genuen horretan pentsatzen, gure helburua proposamen desberdin eta original baten bidez disfrutatzea eta Euskal Herria dantzan jartzea zen".

Hasierako laukote bederatzikote bilakatu da urteen poderioz: Eider Ormazabal abeslaria, Bea Hurtado teklista, Iñigo Suberbiola Xuber perkusio jotzailea, Unai de Andres Patxus baxu jotzailea, Nagore Etxabe bateria jotzailea, Pau Torres saxofoi jotzailea, Ixak Oiartzabal saxofoi tenor jotzailea, Julen Rodriguez tronpetista jotzailea eta Xabi Herrera bera, ahotsa eta gitarrarekin. Haiekin batera, betiko moduan, Iñigo Egia teknikaria jardun zen. Gaur egungo partaideak ez dira denak herri-tarrak eta horrek zaildu egin die entseatzeko elkartzeara, adibidez. Horrez gain, taldekideren bat

ordezkatu arteko tartek "luzeak" izan dira eta horrek "higatu" egin du taldearen dinamika. Edonola ere, behin eta berriro azpimarratu du proiektua amaitzearen erabakiaren barruko "bigarren mailako arrazoiak" izan direla horiek, kausa nagusia kontratazio eskasia izan delako. "Kontzertu gutxitarako deitu gaituzte eta kobratu dugunarekin apenas estali izan ditugu gastuak. Apustu bat egin genuen, baldintza duinetan eta jarraitutasunarekin aritzeko, baina ez dugu lortu. Jalgiokaren aurreko azken emanaldia udan egin genuen, eta hiruzpalau hilabete basamortuan igarotzen dituzunean behin eta berriro...".

Ikus-entzuleen harrera

Emanaldi kopurua taldekideek nahi baino urriagoa izanagatik, Makulu Kenek "ongi" funtzionatu du ikus-entzuleen artean, Herreraren iritziz. "Batez ere, areto txikiagoetan eta gaez aritu izan garenean, afrobeat giro horretako estiloa baita". Askok izan dira taldeari esker euskal afrobeat ezagutu dutenak eta hasierako zalantzak uxatu eta gero indarririk gabe geratu arte dantzatu dutenak.

BI DISKO KALERATU DITU TALDEAK: 'MAKULU KEN' ETA 'KALÈ KALÈ', BIAK AUTOEKOIZTUTAKOAK

Afrikar musika egin nahi zutela argi zuten Herrerak eta Suberbiolak 2006an, lehen doinuak sortzen hasi zirenean. Lehenengoak estilo zehatz bat landu nahi zuen, Fela Kuti musikari nigeriarrak 70. hamarkadan sortutako afrobeat delakoa, eta, bigarrenak, kontinente horretako doinuak baina ikuspegi zabalago batekin. Bien nahiak nahastu zituzten, aipatu estilo hori baitzen oinarria baina beste batzuekin uztartuta, afrikarrak nahiz beste toki batzuetakoak: funk, reggae, eta abar. Bi lan argitaratu dituzte, *Makulu Ken* (2012) eta *Kalè Kalè* (2016), autoekoiztutakoak. Herrera arduratu da, batez ere, sorkuntza (Xuber eta Patxus aritu izan dira horretan ere) nahiz produkzio lanaz, eta, gainerako kideak bezala musika egiteki bizi ez denez, "lo ordu asko" kendu behar izan zizkion "egun pila bati". "Gaueko hamaiketan hasi eta ordubiak edo hiruak arte egoten nintzen, eta, hurrengo goizean, lanera joan behar". Hirugarren album bat prestatzen hasi ziren, baina taldearen asmoak zapuztu zituen 2020ko koronabirusaren pandemiak.

Urte guztietako ahalegin eta izerdi horrek guztiak merezi izan du, oro har. Izan ere, herri-tarrantzat "bizitzaren bizioetako bat" da sormena. "Musikak beste unibertso batean murgiltzeko atea zabaltzen ditu, batez ere, norberak egiten duenean".



Argazki historikoa ezagutarazi eta bertan ikusgai dena azaldu zuen Islada Ezkutatuak elkarteak. TXINTXARRI

Aitortza irudia gudari oriatarrei

Rosa Luxemburgo batailoiairen argazki bat gehitu diote Zirkuitu etorbidean dagoen irudi segidari. Islada Ezkutatuak eta Lasarte-Oriako Udalak igandean, hilak 14, egindako ekitaldian ezagutarazi dute, edukia eta testuingurua ere azalduta

Maitane Aldanondo

Oriatar ugari parte hartu zuten 1936ko gerran Rosa Luxemburgo batailoian eta horren zergatia garai hartan auzoak zituen ezagurrietan topa daiteke. Hortaz, irudi historikoa borrokatu zutenei aitortza izateaz gain, hein batean, garaiko oriatarrei aintzatespena ere bada. Eguraldiak eta azpiegiturak baldintzatuta ekitaldi mugatua egin behar izan bazuten ere, Islada Ezkutatuakeko kide Joxea Muguruzak esan bezala, "ez da gehiago mezezi ez dutelako".

Karmengo kapera batu ziren hilaren 14an udal ordezkariek, elkarteko kideak eta herritar talde bat. Muguruzaren ongietorri hitzen ondoren, txistulariek pieza bat jo zuten Agustin Valdivia alkatearen adierazpenaren aurretik. Langileen eskubideen eta berdintasunaren alde borro-

katu zuen Rosa Luxemburg-en aipu batekin ekin zion: "Mugitzen ez denak ez ditu ka-teak sentitzen. Demokrazia ez da goitik emandako oparia, erdietsi eta babestu beharreko zerbait baizik".

Filosofo, politikari eta iraultzaile poloniarra 1919ko urtarrilaren 15ean eraila izan zen, "ideia handiak" utzita. Haren izena zeraman batailoia ere "historia egin" zuela gogoratu zuen alkateak. "Asko langileak ziren, goizetik gauera Espainiako II. Errepublikaren defentsa bere gain hartu behar izan zutenak.

EUSKAL GUDAROSTEAREN ELITEKO TROPA HONETAN ORIATAR UGARI IZAN ZIREN

Errepublikak, Rosa Luxemburg-ek moduan, demokrazia, askatasuna, eskubide sozialak eta berdintasuna defendatzen zituen".

Esan bezala, borrokarietako asko oriatarrak ziren eta ideia horien defentsan hil ziren, "asko borrokan edo fusilatuta": Tomas Alkorta tenientea, Etxezar anaiak, Joaquin Garro, Ramon Muga, besteak beste. Aurkeztutako irudiak haien "ondarea bizirik" iraunaraztea nahi dute, baita "beraien borroka eta konpromisoa balio horiek defendatzen ditugunentzat inspirazio izatea" ere. Eta hasi bezala amaitu zuen, Luxemburg-en beste aipu batekin: "Sozialki berdina, gizatasunez desberdina eta erabat askeak izango garen munda baten alde".

Joseba Tapia jarri zen orduan mikro aurrean, lehenengoz. Gerra garaia sorkuntza garaia ere



Identifikatzeko gai izan diren gudarien izenak ageri dira. TXINTXARRI

izan zela nabarmendu zuen, "behar zutelako kontatu gertatua" edota "tropari indarra emateko". Juan Ezenarrok 1937an idatzitako eta berak himno bilakaturiko *Agur, maiteño* jo zuen.

Errepublika eta justizia soziala

Kantaren ondoren, Muguruzak testuinguru historikoan kokatu zuen Rosa Luxemburgo batailoia. Eliteko tropa zen, Euskal gudarostearen laugarren batailoia. "Errepublikak eta konpromiso sozialak" eraman zituen herritarrak bertan parte hartzera. Elizak pisu handia zuen, jendearen autonomia oztopatuz arlo askotan, eta lan esplotazioa beste gakoetako bat zen. Orian, "Brunetek basatiki esplotatzen zuten. Guztiaren jabe ziren: lur-sailak, ura, mendiak, dendak, etxeak...", laburbildu du kideak, ondorioz, soldatak "miseria" ziren eta zailtasun handiekin bizirauten zuten.

Hori horrela, "justizia sozialaren nahia" zutenak sozialismoak batu zituen, anarkistak, nazionalistak edo komunistak ere tartean baziren ere. Auzoan gaztelania ez zekiten euskaldunak eta euskara ez zekiten erdalduak bizi ziren, eta "bi gizarte" horietako lagunek osatu zuten batailoia. Nabarmendu ziren zenbait oriatar topatu dituzte, Bikuña eta bi Begiristain, kasu. Azken hauetako bat alderdi komunistaren puntako faltsifikatzailea izan zen. Horren erakusgarri, Irungo mugan he-mezortzi inteligentzia zerbitzu bazeuden ere, berak egindakoa pasatu egiten zen.

ERREPUBLIKAREN DEFENTSAK ETA KONPROMISO SOZIALAK BULTZATU ZITUEN BORROKARA

Kaperako zatia umore onez bukatzeko, Pepe Bolumburuk 1937an idatzitako *Gerrako gure ibilerak* kantua abestu zuen Tapiak. "Harrigarria da halako ipurdiko eta astakeria jasandako gizarte batek eta jende batek nola ateratzen ahal duen umorea. Horrek nolabait markatzen du jende horren maila intelektualak. Kapazak ziren umorea egiteko".

Portugaleteko topaketa

Txistularien doinuak lagunduta, argazki aurrera joan ziren kale-jira gisan. Errepidean zain zituzten *Agurra* dantzatuko zuten bi dantzariak. Txaloak isiltzean, estalita zegoen irudiari oihala kendu zioten alkateak eta elkarteko kide Mikel Amenabarrek. Kosta egin zitzairen, baina beste kide baten eta makil baten laguntzaz lortu zuten.

Ikusgai zenari buruzko zenbait datu eman zituen orduan Muguruzak. Irudia Portugaleten atera zuten, bertan egindako topaketa batean. Jantzera zertu, eta gerrarako ondo prestatuta dagoen bakarra Rafael Izagirre, 20 zenbakiduna zela adierazi zuen. Ziur asko unitate desberdinetakoak ziren, eta armak hartzeko moduak beterranoak zirela adierazten du.

Amaitzeko, elkarteko kideek argazkia egin zuten alkatearekin argazki aurrean, eta jarraian, bertan agertzen diren senideek.

Etxezartarrak, hurrengoak

Udaberri amaieran aurkeztu asmo du Islada Ezkutatuakek Oriako Etxezar familiari buruzko monografikoa. Militante sozialistak ziren eta jazarpenaren ondorioz herritik ihes egin behar izan zuten hamahiru kidek. Lehengusuak geratzen dira herrian, baina ondorengo zuzen bakarra Maria Angeles Etxezar da. "Hori Gipuzkoa osoa guk dakigunez ez da gertatu".

Lasarteoriatarak, Euskadiko podiumean

Lasarte-Oriako korrikalariak pistan zein lokatzean Euskadiko txapelketak lehiatu dituzte. Pistan lau domina jantzi dituzte; Ostadar SKTko Naroa Furundarena eta Oinatz Almagro zein Real Sociadadeko Yeray Varela proba ezberdinetako podiumean izan dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako ordezkariak izan zen hilaren 13an eta 14an, Donostian eta Gasteizen lehiatu ziren Euskadiko txapelketetan. Euskadiko atleta hobereak bildu ziren bietan eta pistako hitzorduan lehen postuetan izan ziren herritarrak.

Donostiako Antonio Elortza Belodromoan jardunaldi bikoitza izan zuten atletak. Ostadar SKTko zazpi ordezkari jauzi probetan, jaurtiketa proban eta 60 m. lasterketan izan ziren borrokan. Real Sociedad taldeko Yeray Veroniz herritarrak ere lasterketa motzean parte hartu zuen. Eta guztira lau domina eskuratu zituzten.

Jauzi probetan jantzi zituzten herriko kirol taldeko kideek hiru domina; urrezko bi eta brontzezko bat. Naroa Furundarenak luzera jauzi (5,84 m.) zein jauzi hirukoitzeko (12,56 m.) lehen postua eskuratu zuen nagusitasunez; luzera jauziaren kasuan, denboraldiko bere marka onena da.

Oinatz Almagro, aldiz, hiru-garren postuan (13,30 m.) sailkatu zen jauzi hirukoitza proban. Bere marka 60 zentimetrotan ondu eta 18 urtez azpiko Espainiako txapelketako gutxieneko-tik oso gertu geratu zen gaztea.

Horiez gain, jauzi hirukoitzeko lehiari, talde kide June Gar-

ciak bere marka pertsonala hobetu zuen, 10,97 m.

Laugarren podiuma 60 m. lasterketan lortu zuen Realeko Yeray Veroniz herritarrak. Donostiako taldeko atletak lehen postuan gaudituz zuen bere sailkapen proba eta finalean 7,00ko marka eginez brontzezko postua eskuratu zuen.

Talde urdin-beltzeko Oihana Igarriz podiumetik (10,91 m.) oso gertu izan zen pisu jaurtiketa proban. Lehen jaurtiketan bigarren izan zen eta bosgarren saiakera arte hirugarren zihonan, baina Tolosako Maria Felisa Okomok 11 metro baino gehiagoko jaurtiketa egin eta laugarren



Naroa Furundarena (ezker) eta Oinatz Almagro (eskuin), podiumean. OSTADAR SKT

postuarekin konformatu behar izan zen herritarrak.

Kros txapelketa

Euskadiko Krosa txapelketa, berriz, Gasteizko Gamarrako parkean jokatu zen, hilaren 14an. Parte hartzaileetako batzuk aurrez uko egin zioten lehiatzeari, baina ausartenez ibilbide lokaztuari aurre egin zioten.

Horien artean, absoluto mailan, Aloña Mendi elkarteak Jon Presa (35,56), Super Amara BAT taldeko kide Unax Goenaga (37,14) eta Atletico Renterian dabilen Mari

Carmen Oloso (55,29) herritarrak izan ziren eta hirurak helmugara iritsi ziren.

Eskolarteko konbinatuak

Bestalde, Ostadar SKTko kideek eskolarteko proba konbinatuaren saioa antolatu zuten hilaren 13an, Donostiako Belodromoan.

Donostialdeko 200 bat haur bildu ziren bertan eta giro onean, adinaren arabera proba ezberdinak egin zituzten; lasterketa bat (60 m. edo 80 m.), luzera jauzia, pisu jaurtiketa eta zaharrenek 80 m. hesi lasterketa.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Mariño Real Union CD - Ostadar SKT
Igandea. 16:00. Ugalde-Ventas, Iruen.

GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Urnieta CD
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO JUBENILA

Añorga KKE B - Ostadar SKT
Igandea. 15:00. Rezola, Donostian.

JUBENILEN I. MAILA

Ostadar SKT C - Lazkao KE B
Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
Billabona KE B - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 18:15. Arratzain, Villabonan.
San Marcial CD C - Ostadar SKT B

Larunbata. 19:30. San Jose Obrero, Iruen.

OHOREZKO KADETEA

Touring KE - Ostadar SKT
Igandea. 10:30. Fanderia, Erreterian.

INFANTIL HANDI, KOPA

Ostadar SKT - Behobia CD
Larunbata. 10:00. Michelin kirol gunean.

INFANTIL TX., TXAPELDUNEN FASEA

Ostadar SKT - Lazkao KE
Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.

INF. I. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA

Trintxerpe CD - Texas Lasartearra CF
Igandea. 12:00. Trintxer, Pasaian.

INF. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA
Oreeta Kafe FC B - Ostadar SKT

Larunbata. 14:00. Fanderia, Erreterian.

ARETO FUTBOLA

KADETE MAILA

Laskorain KE - Eguzki G. Goxua

Larunbata. 13:00. Usabal kirol., Tolosan.

INFANTIL MAILA

Eguzki B. La Escalerilla -
Antiguoko KE B

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.



SASKIBALOAIA

KADETE PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Panelfisa TAKE

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL ERRENDIMENDU URREA

Latz Taberna ISB - Ostadar SKT
Igandea. 12:30. Azpeitiako kiroldegian.

INFANTIL PARTAIDETZA

CD Internacional - Ostadar SKT
Igandea. 09:15. Mons kir., Donostian.

Oiarso SKT Super Amara - Ostadar Urdina

Igandea. 09:45. Galtzaraborda kirol., Erreterian.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA

Galdakao BT - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Ureeta kirol., Galdakao, Bizkaian.

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Ostadar SKT - Kora Green City
Mendebaldea

Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETE MAILA

La Asunción Izukaitz Ik. A - Ostadar SKT
Ostirala. 16:00. La Asunción ik., Donostian.

INFANTIL MAILA

Mayumi 1 - Ostadar SKT A
Larunbata. 11:00. La Salle ik., Iruen.
Tolobolei Herrikide A - Ostadar SKT B

Igandea. 09:00. Uzturpe pilo., Tolosan.



IGERIKETA

KZL LIGA

Buruntzaldea IKTKo benjamin mailako igerilariak KZL Ligako bigarren jardunaldia lehiatuko dute.

Larunbata. 16:00. Majori kirol., Ordizian.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo Iñaki Garcia igerilaria Erkidegoen arteko Espainiako txapelketan lehiatuko da Euskal selekzioarekin. Ostiraletik igandera. Palma Mallorcakoa, Balear Uharteetan.

PILOTA

GOMAZKO PALETA, 2. SENIORRA

Beotibar - Intza KE (Mendizabal)

Ostirala. 20:45 (1. partida). Beotibar pil., Tolosan.

UDABERRI TX., 2. SENIORRA

Aloña Mendi 1 - Intza KE
Ostirala. 18:30 (3. partida). Zubikoa pil., Oñatin.

ESKUZ BINAKA, 2. INFANTILA

Kuku - Intza KE 2
Ostirala. 18:45 (1. partida). Alkartasuna pil., Anoetan.
Ziotza 2 - Intza KE 1

Larunbata. 16:00 (2. partida). Intxaur pil., Zizurkilen.

ESKUZ BINAKA, 3. INFANTILA

Gazteleku 1 - Intza KE
Ostirala. 18:15 (3. partida). Arrate pil., Andoainen.

ESKUZ BINAKA, 2. ALEBINA

Intza KE - EPLE 2
Ostirala. 19:00 (1. partida). Loidibarren pilotalekuan.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Ekin eraikuntzak Arratiko Zekorak RT
Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.

18 URTEZ AZPIKOIA

Uribealdea Arrieta - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT
Larunbata. 12:00. Ardanza, Plentzia, Bizkaian.

16 URTEZ AZPIKOIA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Getxo 2009

Larunbata. 10:30. Asti, Zarautzen.

12 ETA 10 URTEZ AZPIKOIA

Beltzak RT Errugbi eskolako gaztetxoek Topaketa izango dute. Zarautz RT, Hernani, Atletico San Sebastian, Bera Bera, Txingudi eta Baztan taldeetako gaztetxoekin batuko dira.

Igandea. 10:30. Landare, Hernanin.

XAKEA

II. MAILA

SALTO Bidasoa B - Taula A

Larunbata. 16:00. Iruen.

III. MAILA

Agustin de Leiza C - Taula B
Larunbata. 16:00. Urgain, Andoainen.

Etxeberria eta erreleboa, Hernaniko Sarian fin

Buruntzaldea IKTko kideak Hernaniko Igeriketa Sarian lehiatu dira. Igeriketa taldeko kideak bakarka eta taldean igo dira lehiaketako podiumera. Markak ondu eta Gipuzkoa zein Euskal Herriko lehiatarako gutxieneko berriak ere eskuratu dituzte gazteek

Txintxarri

Hilaren 13an, Hernaniko 25. Igeriketa Saria jokatu zen Hernaniko kiroldegian. Buruntzaldea IKTko ordezkariak izan zen; infantil, junior eta absolutu mailako hamasei igerilari lehiatu ziren. Gehienek euren onena eman eta markak hobetu zituzten.

Parte hartzaile guztiek edozein estiloko 100 metroko proba eta berrikuntza modura lau estiloko 200 metroko saioa egin behar izan zuten. Gainera, Lasarteko Sariaren antzera, lehiaketa mistoia izan zen eta FINA puntuzioaren arabera erabaki zen podiuma. Horrela izanik, Garaiz Etxeberriak 100 m. librea egindako saioari esker, Sariko bigarren postua eskuratu zuen.

Taldeko sailkapena, aldiz, 4x50 m. errelebo proban jokatu zen. Buruntzaldea IKT hiru talde aurkeztu zituen eta Iñaki Garcia, Miren Sarobe, Iker Gorostegui eta Garaiz Etxeberriak osatutako lauokoa eraman zuen garaileen kopa.

Markak pilatzen

Garaikurrez gain, igeriketa taldeko gazteek guztira 26 marka pertsonal ondu zituzten eta batzuk, gainera, Gipuzkoako zein Euskal Herriko txapelketetara-



Buruntzaldea IKTko erreleboetako bat podiumera igo zen. BURUNTZALDEA IKT

ko sailkapen berriak gehitu zituzten euren poltsara.

Nora Miguelezek eta Oihan Matutek Gipuzkoako Udako Txapelketako euren zerrendan proba berria gehitu dute, 100 m. bular eta 50 m. tximeleta eta Ibon Elolak Udako Euskal Herriko Txapelketan lau estiloetako 200 metroko proba ere egingo du.

Neguko hitzorduak

Iñaki Garciak, aldiz, absolutu mailako Euskal Herriko gutxieneko eskuratu du 100 m. bizkar proban (01.03,16) eta otsail ha-

sieran Iruñean lehiatuko den txapelketan izango da igerian.

Bien bitartean, Garciak hitzordu garrantzitsua izango du; hilaren 19tik 21era, Erkidegoen Artekko Espainiako XII. Igeriketa txapelketan parte hartuko du Euskadiko selekzioarekin. Palma Mallorcakoan (Balear Uharteak) jokatu da lehia eta hiru probatan egingo du igeri gazteak: 100 m. eta 200 m. bizkar eta 200 m. lau estiloak.

Eta hilaren amaieran, markak eskuratu dituzten taldeko kideek Gipuzkoako Neguko txapelketara egingo diote aurre.

Kadete Errendimendu Urrea taldeak, ezin igoera lortu

Euskal Ligarako igoera izan du jokoan Ostadar SKTko kadete taldeak; Saski Axular taldeak itxi dio atea

Txintxarri

Kadete Errendimendu Urrea kategoriako lau talde Euskal Ligarako igoera jokatu dute hilaren 13an eta 14an. Lehen egunean finalerdikoak lehiatu ziren Donostian eta Beasainen. Lehen neurketan Ostadar SKTko kadete taldea izan zen borrokan. Aurrean Saski Axular izan zuen.

Liga erregularrean bi alditan neurtu zituzten indarrak taldeek eta bietan donostiarrak atera ziren garaile. Urdin-beltzek arantza kendu nahi zuten, baina bigarren laurdeneko jardunak eta pertsonal marran galdutako puntuek baldintzatu zuten azken emaitza.

Lau minutu parekatuen ostean, Ostadarreko jokalariek erasoan fin ibili ziren eta bost puntuko alde ireki zuten. Laurdenaren amaiera arte ongi mantentzen zuten errenta eta 13-18 izan zen partziala.

Baina donostiarrak ez zuten amore eman eta erasoan zein defentsan indartsu hasi zuten bigarren laurdena. Laugarren minuturako puntu batera geratu zen Saski Axular eta hurrengo sei minutuetan itzulia eman zion markagailuari. Ostadarrek ezin izan zuen erraz jokatu eta saski azpian ere ez zuen zorterik izan. Ondorioz, 32-25ko markagailuarekin iritsi ziren atsedendira.

Hirugarren laurdena puntu gutxikoa izan zen; 8-7 izan zen partziala. Bi taldeek defentsa gogorra egin zuten eta ondorioz, saskiratze gutxi izan ziren. Pertsonaleko marratik ere aukera gutxi batzuk izan zituzten bi



ZASTen aurkako partidako irudia. TXINTXARRI

taldeek, baina ez zuten ez batek ez besteek asmatu.

Eta azken 10 minutuak ere borrokatu eta parekatuak izan ziren. Ostadarrek, esate baterako, hirukoa sartu zuen. Tamalez, talde urdin beltzeko kideek jaurtiketa pertsonaletan ez zuten asmatu eta partida berdintzeko puntu baliotsuek ihes egin zizkieten. Ondorioz, 14-13 amaitu zen laurdena eta 54-45eko markagailuak donostiarrari eman zien finala jokatzeko txartela.

Gipuzkoako txapelketa

Euskal Ligarako igotzeko aukera galduta, Gipuzkoako txapelketa izango du orain jokoan Jonatan Reinoren taldeak. Errendimendu Urreko taldeak zilar mailako sei hoberen aurka lehiatuko dira. Bi multzotan banatuta bi itzuliko liga jokatuko dute eta talde bakoitzeko lehen sailkatuek jokatuko dute lehiaketako finala.

Eguzkiko 3. mailako taldeak garaipena erdietsi du etxean

Kadete mailako Eguzki Goxokis Goxua taldeak ere puntuak eskuratu du Antiguokoren aurka hiruna berdinduta

Txintxarri

Eguzki Areto Futboleko taldeek ligari berrekin diote Gabonetako atsedendiarren ostean. Bost taldeetatik bik bakarrik lortu dituzte puntuak euren neurketetan.

Hiru puntu gehitu zituen Eguzki ISU Leihoak taldeak Maialen Chourraut kiroldegian; 3. mailako jardunaldian Eibartarrak FT 8-4 garaitu zuen. Jon Merinok zuzentzen duen taldea egoki jardun zen eraso zein defentsan

eta eibartarrek ezin izan zuten neurketa borrokatu.

1. Mailako taldeak, aldiz, aurkari zaila zuen, Lauburu KE Ibarra. Sailkapeneko bigarren postuan da Ibarako taldea eta ongi erakutsi zuen. Aukera gutxi utzi zizkion Josu Lopezen taldeari eta Ibarako taldea 7-2 gailendu zen.

Hitzordu hirukoitza

Kadete mailan lortu zen beste puntu bat. Harrobiko hiru taldeek Antiguokoren aurka izan zuten hitzordua batzuk etxean eta



3. mailako partidako irudia. TXINTXARRI

besteak kanpoan eta Goxokis Goxuak taldeak partida borrokatuan hiruna berdindu zuen.

Gazteen mailako Eguzki Bodegas Ayesak ere gogor egin zion aurre Donostiako taldeari. Baina azkenean Antiguokok eraman zuen garaipena, 4-5.

Txikiek bestelako neurketa bizi izan zuten, ordea. Donostiarrak nagusi izan ziren hasieratik. Nahiz eta Bar Escalerillako gaztetxoak saiatu, Antiguokok ongi hartu zion neurria eta 12-0ko izan zen azken emaitza.



Taula Xake Klubeko kideek hitzordu bikoitza izan zuten Blas de Lezoko lokalean. TXINTXARRI

Txanponaren bi aldeak taldekako liga hasieran

Taula Xake Klubeko kideek taldekako ligaren lehen jardunaldia jokatu dute Blas de Lezo kaleko lokalean. Bigarren mailako lehiari gailendu da Taula A taldea; B taldeak, aldiz, ezin izan du hirugarren kategoriako neurketa irabazi Billabona Eren aurka

Txintxarri

Taula Xake Klubak Taldeko Liga hasi du etxean. Hilaren 13an, Danok Kide elkartearen Blas de Lezoko lokalean Beraun Bera B eta Billabona E taldeen bisita jaso zuten.

Lehenak bigarren mailako Taula A izan zuten aurkari. Herriko ordezkariak Miguel Maria Baroja, Iñaki Erdozio, Iker Mendibil eta Jose Ignacio Echeverria dira kategoriatan. Lan ederra egin zuten lehen jardunaldian; jokatuak lau partidetatik hirutan garaile atera ziren.

Taula Xake Klubak taldekide berriekin osatu du lau hori: "Hernaniko taldea desegin da eta bertako kideak gurekin ari dira jokatzeko". Horri esker, tal-

dearen maila igo dutela azpimarratu dute.

Lehen neurketa honetan ikusi ahal izan dutenez, bigarren mailako lehiari lehenengo urtean baino maila altuagoa du. Horregatik, taldearen helburua euren multzoko lehen lauen artean sailkatzea dela onartu dute xake klubeko arduradunek: "Helburua maila mantentzea da. Lehen lau postuetan jaitsiera saihestuko genuke".

Ongi hasi dute lehiaketa hiru puntu batuz. Pausoz pauso xedea lortzeko lan egingo dute kideek.

Belaunaldi berria

Villabonatarrek, aldiz, aurtengo berrikuntza den Taula B taldearen aurka egin zuten; neurketa bana irabazi eta berdindu eta bi galdu zituzten etxekoek.

Juan Carlos Figueras eta Juan Luis Varela beteranoek eta Mikel Manterola eta Diego Alonso gazteek osatzen dute B taldea.

Xake klubeko arduradunek onartu dutenez, "belaunaldi berriek bidea egiteko sortu da bigarren taldea. Lehiatzeko adina zuten 13 eta 14 urteko bi kide ditu eta beteranoekin batera nahasketa ona egin dute".

Lauko honen xedea, beraz, gazteek xake klasikoa nola jokatzen den ikastea eta txapelketa sistemara moldatzea izango da eta horretarako gazteek partida jokatzeko besterik ez dutela azpimarratu dute Taula kideek.

Izan ere, Taula Xake Klubeko arduradunek azaldu modura, iaz kluba sortzearen asmoetako bat Lasarte-Oriako haur eta gazteak kirol horretara hurbiltzea zen, gerora herriak jokalarri belaunaldi berri bat izateko.

Harrobia lantzen

Klubeko harrobia lantze aldera, ostiral arratsaldeetan, 18:00etatik aurrera, haur eta gazteak Danok Kideren lokalean biltzen dira. Orain arte, irakasle bakarra izan da hurrei kirolaren nondik norakoak azaldu eta teknika ezberdinetan trebatzen. Taldea handitzen joan den heinean, bigarren bat ere hasi berri dela jakitera eman dute klubeko kideek.

Eta xake kluba herriko haur eta gazte guztiei irekia dagoela gogoratu dute.

Beste herritarrek

Beste herritar batzuk ere Gros Xake Klubarekin lehiari ari dira bigarren mailako txapelketan. Zehazki Juan Rodriguez eta Erlantz Sanchez dira eta Gros H eta Gros K taldeetako kide dira hurrenez hurren. Biek euren partidak irabazi zituzten lehiaketako lehen hitzorduan, nahiz eta Rodriguezen kasuan Gros Hk ezin izan zuen Gros Jren aurka garaipena erdietsi.

Horrez gain, Ligako A multzoan daude Groseko bi lauhoak, beraz, Taula Aren aurka neurtuko dituzte indarrak denboraldian zehar.

Texas Lasartearra, irabazle erregional zein jubenil derbietan

Erregional eta kadete mailako taldeek liga erregularrari agur esan diote. Igoera fasea eta kopari lehiatuko dituzte

Txintxarri

Lasarte-Oriako taldeen derbi bikoitza izan zen hilaren 13an. Giro ederra izan zen Erregionalean zein Jubenilen I. mailako partidetan eta bietan Texas Lasartearra izan zen garaile.

Jubenilen norgehiagoka izan zen lehena. Carlos Tejadok zuzentzen duen taldeak bere multzoko buru mantentzea zuen helburu.

Neurketa hasieratik garaipena lortzera zihoala erakutsi zuen eta Ostadar C taldeak talde zuri-urdinaren nagusitasuna onar-

tzea besterik ez zuen izan; 5-1 gailendu zen Texas.

Erregional mailakoan lehia handiagoa ikusi ahal izan zen zelaian. Herriko taldeen buruz burukoak gain, erregional taldeen Liga erregularrako azken jardunaldia zen eta Texas Lasartearrak bigarren postuari eutsi nahi zion. Gogotsu jardun ziren bi taldeak, baina Texasek hobeto baliatu zituen gol aukerak eta 5-3 amaitu zen derbia.

Hurrengo fasea

Ondorioz, Texas Lasartearra bere multzoko bigarren sailka-



Erregionalean I. mailako Texas Lasartearra eta Ostadarren arteko neurketako irudia. TXINTXARRI

tu da Lazkao KEren atzetik eta Gorengo erregional mailarako igoera fasea jokatuko du.

Zuri-urdinek Zarautz KE B, Behobia CD, Irauli-Bosteko KK, Hernanin CD B, Idiazabal KE, Aloña Mendi B eta Eibartarrak

FT taldeekin batera 1 multzoa osatuko dute. Itzuli bikoitzeko ligaxka lehiatuko dute eta lehen sailkatuek mailako finala jokatuko dute, baita igoera ere.

Ostadarrek, aldiz, bosgarren postuan amaitu du lehen fasea

eta kopari egingo dio aurre 2. multzoan. Pasaia KE B, Axular Lizeo B, Sporting de Herrera, Astigarragako Mundarro KE B, Beti Ona CD, Allerru KE B eta Arrupe Chaminade CDDF izango ditu aurkari.

Ez dira erregional I. mailako taldeak fasea amaitu duten bakarrak izan, kadete I. mailakoek ere agur esan diote urteko lehen zatian eta hilaren 28tik aurrera, hiru txapelketa izango dituzte lehiari: igoera fasea, Gipuzkoako kopa eta mutilen kasuan, Udaberriko kopa.

Lasarteoriatar talde guztiak kopa txapelketetarako sailkatu dira. Zehazki, Texas Lasartearra, Ostadar B eta urdin-beltzen neska taldeak Gipuzkoakoa lortzeko borrokatuko dira eta Ostadar Ck, aldiz, Udaberriko lehiatuko du.

Zorte ezberdina izan dute Intzako pilotariek

Intzako pilotariek bikoteka zein banaka modalitate ezberdinetako txapelketetan murgildu dira. Lehen hitzorduan neurketa borrokatuak jokatu arren, Infantil 2. mailako Intza 1 bikoak bakarrik lortu du garaipena Behar Zana 2ren aurka

Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko kideek urteko lehen jardunaldian etxean jokatu zuten, hilaren 13an eta 14an. Txapelketa ezberdinei hasiera eman zieten pilotariek eta denetariko emaitzak izan ziren.

Errendimenduko bikotekako lehiaketarekin ekin zioten Intzako ordezkariak neurketaz betetako asteburuari. Zehazki, infantil 2. mailako bi lehia izan ziren hilaren 13an, Loidibarreneko pilotalekuan.

Ez zen ongi hasi arratsaldea. Etxeko zaletuek ederki animatu arren, Hernani 1 nagusi izan zen eta 3-18 gailendu zen Markel Lopez eta Itxaso Iparragirrenen aurka.

Bestelakoa izan zen bigarren neurketa. Oier Jauregi eta Ekhi Maiz bikoteak borrokatutako garaipena eskuratu zuten; Behar Zana 2 18-13 gailendu zuten Intzako gazteek.

Eta arratsaldeari amaiera emateko modalitate aldaketa izan zen; eskutik gomazko palara. 2. mai-



Intza 1 infantilen neurketa. TXINTXARRI

lako txapelketako lehen buruzburuko jokatu zuen Jagoba Mendizabalek; Hernaniko Manterola izan zuen aurkari. Lehia estua izan zen eta etxeko pilotaria neurketa osoan aurretik joan zen. Azken tantoetan aurkaria fin ibili zen, ordea, eta neurketari itzulia eman zion, 22-25.

Aurkariak, uko

Hurrengo egunean, Michelin kirol gunean zuten hitzordua

Infantil 3. mailako zein nagusien 2. mailako bikoek.

Azken horiek Udaberri txapelketari hasiera eman behar zioten, neurketarik ez zuten izan ordea. Zazpi Iturriko ordezkariak uko egin diote lehiaketa jokatzeari eta Intzako pilotariek hurrengo jardunaldira itxaron beharko dute.

Infantil mailako norgehiagokari dagokionez, Intzako gazte txoek ez zuten zorterik izan. Unax Urdangarin eta Unai Lizarraga ederki borrokatu ziren. Baina momentu garrantzitsuetan urduri jardun ziren eta Goierri 3 bikoak ederki baliatu zuten egoera 15-18 irabazteko.

Alebinak ere

Hurrengo jardunaldian 2. urteko alebinak gehituko dira Errendimenduko bikotekako lehiara. Hilaren 19an, ostiralarekin, Intzako gazte txoek EPLE 2ren aurka jokatu dute Michelin kirol guneko pilotalekuan.

12an eta 19an izango dira lasterketak.

Sari nagusiak

Uda partean izango dira lehiarik garrantzitsuenak bai ikusle baita zalditegiatiko ordezkariarentzat ere. Denboraldiak uztailearen 7tik irailaren 12ra iraungo du. Igande arratsaldero distantzia ezberdinetako lasterketak ikusteko aukera izango dute Hipodromo pistean.

Baina badira salbuespen batzuk. Ohitura den legez, Urrezko Kopako abuztuaren 15ean jokatzen da eta aurten asteazkenena da. Bestetik, abuztuaren 25eko jardunaldia asteen zehar jokatuko da, zehazki, abuztuaren 23an goizez hitzartu dute. Azken saioa, irailaren 12koa ere ostegunarekin jokatuko da, arratsaldean.



lazko lasterketako irudia. ISAAC FARRE RICO

Hamazazpi jardunaldi jokatuko dira Donostiako Hipodromoan

Udaberri eta udako denboraldiko datak zehaztu ditu Hipodromoak; goiz edo arratsaldez izango dira saioak

Txintxarri

2024 urteko egutegia aurkeztu zuen Donostiako Hipodromoak hilaren hasieran. Udaberriko zein Udako denboraldiak izango dira eta guztira, hamazazpi jardunaldiz gozatuko dute zaldi lasterketen zaletuek.

Udaberriko lehiak martxoaren 28an, ostegunarekin hasi eta ekainaren 6an, ostegunarekin amaituko dira. Saio guztiak goizetan lehiatuko dira.

Garai horretako gainerako hitzorduak ostiralez jokatuko dira, zehazki, apirilaren 5ean,



16 urtez azpiko taldea, neurketa baino lehen. EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOA

Euskal Ligako beltzen taldeak ezin izan du La Unica garaitu

Sanchez eta Zabala herritarrek Valentziaren aurka jokatu dute 16 urtez azpiko Euskadiko selekzioarekin

Txintxarri

Euskal Ligako 2. mailako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeak ez zuen zorterik izan Iruñera egindako bidaian. La Unicaren aurka neurtu zituzten indarrak beltzek eta lehen minutuak borrokatuak izango zirela zirudien arren, etxekoek argi utzi zuten ez ziotela aurkariari garaipena erraz salduko; 42-10 izan zen azken emaitza.

27. minutura arte ez zen hurnako berdinketa mugitu. La Unicak entsegu eta gauzatzea egin zuen eta minutuetara jaso zuen beltzen erantzuna entsegu bidez.

Atsedendia baino lehen beste entsegu eta gauzatze bana egin zuten iruindarrek eta 14-5ekoa jarri zuten markagailuan.

Bigarren zatia indartsu hasi zuen etxeko taldeak eta ahaleginek fruituak eman zituzten; bi entsegu eta gauzatzerekin neurketa bideratu zuten.

Beltzek, saiatu arren, 70. minutura arte ez zuten berriro entsegu marra igaro.

Eta horren ostean ere La Unicaren beste bina entsegu eta gauzatze jaso zituen bere atean Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeak.

Hurrengo jardunaldian, hilaren 21ean, Michelingo kirol gunean euren onena emateko entrenatuko dira beltzak. Ekin eraikuntzak Arratiko Zekorrek izango dute aurkari.

Valentzia nagusi

Ligako jardunaldi horretaz gain, 18 eta 16 urtez azpiko Euskadiko selekzioen lehia ere izan zen. Erkidegoen arteko Espainiako Txapelketako (CESA) hirugarren jardunaldia jokatu zen, Astiko zelaian, Zarautzen eta Valentzia izan zuten aurrez aurre.

Gazteen taldean Beltzak RTko harrobiko Eneko Sanchez eta Lander Zabala gogor borrokatu ziren valentziarren aurka; Sanchez hamabostekoan izan zen eta Zabala 52. minutuan atera zen zelaira. Ederki saiatu arren, aurkaria nagusi izan zen eta 5-21 gailendu zen Valentzia.

Beñat Carbayed, hirugarren urtez Caja Rural-Alea taldean

Beñat Carbayed herritarrek Caja Rural-Alea taldean jarraituko du. Hilaren 17an, Caja Rural-Seguros RGaren harrobi taldearen aurkezpena egin zuen, Iruñan eta herriko kirolaria egon zen bertan. Lasarteoriatarrek hirugarren denboraldia du 23 urtez azpiko filialean.

Nafarroako taldeak Espainiako kopako lasterketak, Euskal



Carbayeda (goiko ilara, eskuinetik bigarrena), aurkezpenean. CAJA RURAL-ALEA

duna zein Lehendakari torneoak edo nazioarteko hainbat itzuli egiteko asmoa duela iragarri du eta horietan egoteko lan egin beharko du herritarrek.


KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Maren
Zorionak goxoki!
Ondo-ondo pasa
zure urtebetetzeari.
8 muxu potolo
printzesa. Maite
zaitugu!!



Aratz
Zorionak Aratz! Zure
guraso, Aiur eta
Koaren partez. Pila
maite zaitugu. 14
muxu erraldoi.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 19	DE ORUE
LARUNBATA, 20	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 21	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 22	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 23	URBISTONDO
ASTEAZKENA, 24	GIL
OSTEGUNA, 25	ACHA-ORBEA

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia:
Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani.
943-57 64 77

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com
webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Zozketako zenbakia

Ttakun Kultur Elkarteak San Tomas egunean urdaiazpiko eder bat zozkatu zuen. Zorbaki sariduna 0140 izan zen, oraindik ez da irabazlea atera. Beraz, zorbaki sariduna baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan 943-37 14 48 edo 695 78 53 89 telefono zenbakietan. Hilaren 2lean izango da jasotzeko azken eguna.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU
Erdigunean garaje marra bat alokatzeko abendutik aurrera. Arratsaldean deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKAINITZA
Lasarte-Oria interna modura lan egiteko emakumea behar dut. Baldintza onak eskaintzen dira. Informazio beharrezkoak. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Lanaldi erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabilta. Kobrea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umeekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbitzaile...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etortzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

IGANDEA 21

LASARTE-ORIA Manifestazioa

Lasarte-Oria Palestinarekin herri dinamikak herrialde horren aldeko ekintza antolatu du. Okendo plazatik abiatuko dira manifestariak. **Okendo plaza, 17:00etan.**

LASARTE-ORIA Zinema

Wonka filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Ocho apellidos marroquis filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 24

LASARTE-ORIA Mahai ingurua

Borobileen Elkarteak lagunek beste mahai inguru ireki bat prestatu dute hilabete honetarako, osasun sistema publikoari buruz, *Osakidetza kinka larrian?* izenburupean. Pertsona hauek gonbidatuko dituzte gai horri buruz euren ikuspuntua emateko: lehen arretan aritutako sendagile erretiratu Ina Idarreta, Onkologikoko Erabiltzaileen Batzordeko eta Izan Iñurri elkarteko kide Olatz Mercader, EH Bildutik Gasteizko Legebiltzarreko kide den Rebeka Ubera eta Donostialdea Osasun Sistema Publikoaren Alde plataformako kide Kontxi Rebollo. Antolatzaileek gogorarazi dute ekitaldia irekia dela eta herritar oro bertara daitekeela.

Oriarte Landaberri institutua, 19:00etan.

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Zinema

El viejo roble filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute. Okendo Zinema Taldearen hilabeteko bigarren proiektzioa izango da.

Kultur etxea, 20:00etan.



LASARTE-ORIA Mahai ingurua

Urtarrileko saioa prestatu du Borobileen Elkarteak: osasun sistema publikoa hizpide izango duen *Osakidetza kinka larrian?* mahai ingurua aurrera eramango du. Ekimena irekia dela gogorarazi dute eragile horretako kideek. **Hilak 24, asteazkena, Oriarte Landaberri institutuan, 19:00etan.**

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Ikastaroa

Sukaldaritza makrobiotikoari buruzko ikastaroa emango du Gorka Gereño sukaldariak. "Urte amaieratan nahiz hasieratan nahi baino gehiago jan ohi dugu askotan eta jarduera hau aproposa izan daiteke gure buruak pixka bat gehiago zaintzeko, plater goxo eta osasuntsuak prestatzen ikasita", nabarmendu dute antolatzaileek. Izen emateak 50 euro balio du; parte hartu nahi dutenek 662 53 90 13 telefono zenbakira mezu bat bidali behar dute. **Zabaleta Auzolan elkartearen lokala (Basotxo plaza), 10:00etatik 13:00etara.**

LASARTE-ORIA Literatura

Bookstart Euskadi egitasmoaren barruko Liburu Baby Klubaren laugarren saioa eramango dute. 0 eta 2 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzenduta dagoela eta doakoa dela gogorarazi dute antolatzaileek.

Udal Liburutegia, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Erik eta Win antzezlanaren emanaldia egingo du Buhameak konpainiak. Sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.

IGANDEA 28

LASARTE-ORIA Zinema

Kina y Yuk filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Anatomía de una caída filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

OSTIRALA 2

LASARTE-ORIA Ikastaroa

Lasarte-Oriako Udalak altzariak zaharberritzen ikasteko saio bat antolatu du, egun horretan hasiko eta otsailaren 23ra arte luzatuko dena. Izena eman nahi dutenek hilaren 26a baino lehen egin beharko dute tramite hori, kultur etxean ala udalaren erregistroan. Ordutegia 10:00etatik 13:00etara artekoa da, astelehenetik ostiralera. Ikastaroa doakoa dela zehaztu du erakundeak.

Gaztelekua, 17:30etik 20:00etara.

ZINEMA



LABURPENA

'Wonka'

Zuzendaria: Paul King. **Gidoia:** Paul King, Simon Farnaby.

Argazkia: Chung-chung Hoon. **ekoizleak:** Heyday Films, Warner Bros, Village Roadshow. **Herrialdea:** Erresuma Batua (2023).

Iraupena: 115 minutu. **Generoa:** Musikala. **Aktoreak:** Timothee Chalamet, Calah Lane, Olivia Colman, Hugh Grant.

Paradisuaeren sortzailearen jatorria

Willy Wonka (Timothee Chalamet) asmatzaile, mago eta txokolategile ospetsuaren jatorria ezagutuko dute protagonistaren abizena daraman filma ikusten dutenek.

Wonkaren gaztaroan oinarritzen da Paul King-ek zuzendutako luzemetraia eta baita Oompa-Loompa izeneko izakiak ezagutzen ditueneko abenturan ere. Loompalandia

izeneko herrialdetik eramango ditu bertako herritarretako asko bere txokolate fabrika ezagunean lan egitera.

Roald Dahl idazlearen *Charlie y la fábrica de chocolate* eleberriko protagonista nagusietako bat da Willy Wonka eta King lan horretan oinarritu da filma egiteko. Abentura generoko lan horrek musikal formatua du eta 115 minutu irauten ditu.



LABURPENA

'Ocho apellidos marroquis'

Zuzendaria: Alvaro Fernandez Armero. **Gidoia:** Daniel Castro.

Argazkia: Sergi Gallardo.

ekoizleak: Telecinco Cinema, Cantabria Film Comission, Pris and Batty Films, Mediaset España, Movistar Plus+.

Herrialdea: Espainia (2023).

Iraupena: 97 minutu.

Generoa: Komedia,

maitasunezkoa. **Aktoreak:** Julian Lopez, Michelle Jenner, Elena Irureta, Maria Ramos, Hamza Zaidi, Abdelatif Hwidar, Antonio Resines, Anibal Soto, Joaquin Nuñez.

Bidaia ero bat

Jose Maria senarraren azken nahia betetzeko asmoz, Carmenek (Elena Irureta) Sardinete izeneko arrainontzia Marokotik ekartzeko bidaiari ekingo dio. Begoña (Michelle Jenner) eta horren bikotekide ohi Guillermo (Julian Lopez) izango ditu bidaide. Abentura horretan Jose Mariaren sekretua deskubrituko dute.

EPA LASARTE HHI

MATRIKULA ZABALIK urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra



- **Lehen Hezkuntza:** Alfabetizazioa, Historia, Osasuna eta elikadura, Ingelesa eta Espainiera.
- **Bigarren Hezkuntza (DBHko titulua lortzeko moduluak).**
- **Euskara tailerra.**
- **Gela digitalak:** hiritartasun digitalerako tailerrak



Aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu!

Tel. 943-37 64 43 / 943-36 66 08 • Beko kalea bidea, 1º 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.eus

ZUREKIN

nonahi noiznahi

Eman izena urtarrilaren 31 baino lehen:
Ttakun Kultur Elkartea | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

LASARTE-ORIA

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ **Jaiotze data:** _____

Helbidea: _____ **Herria:** _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____


Kontu korrontea (IBAN): _____

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, beheka 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu



Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkartean urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailaz

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen hudekietarako erabiliko dira adierazten dizugu: hudekietara administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen parte hartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideen irauten duen bitartean edota betebeharrak legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonen eskaintzako betebeharrak legalak dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, opozizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkideztak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943-37 14 48